



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Barietate zaharren gaurkotasun ankerra

Hamar mila urtetik gora-ko nekazaritza-historia duen garitik hasi eta Aretxabaletako tomate morera bitarte, tokiko barietateak ehunka nekazari belaunaldik egindako lan saiatuaren emaitza dira. Gurasoetatik seme-alabetara, nekazariak mendez mendez haziak tokiko baldintzetara moldatuz joan dira, lur mota ezberdinetara, klimara edota tokiko biztanleriaren gustuetara egokituz.

Nekazaritza industrialak eta honek ekarritako hazi hibridoek, baina, transmisio-katea eten zuten. Oso homogeenak, oso emankorrak, eta pestizida zein plagizidetan oso dependenteak izan ohi diren hibridoek zabalkundeak, bide batez, milaka barietate zaharren desagertzea ekarri zuen. Aldi berean, baserriarren autonomia ere nabarmenki gutxitua izan da: hazi moderno hauek ezin daitezke gorde, urte batetik bestera ez dituztelako ezaugarriak mantentzen, eta patenteekin lotuak daudelako.

Ezin ahaztu genezake, haatik, barietate zaharrik gabe ez litzatekeela hibridorik existituko. Horiek horrela, haziak guztion ondarea direla sinetsita, eta barietate zaharrak mantentzea gizateria osoaren auzia dela aintzat hartuta, ekimen ezberdinak garatu dira. Euskal Herrian, esaterako, Euskal Herriko Hazien Sarea daukagu, gure baserriarrek garatu eta gordetako barietateak berreskuratu, biderkatu eta interesatuen artean banatzeaz arduratzen dena, era ez komertzial batean. Beste maila batean leudeke Kataluniako Les Refardes-Gaiadea ekimenaren tankerako esperimentuak. Elkarrekin horiek 11 urte daramatza tokiko barietateen haziak berreskuratzen, era ekologikoan ekoizten eta merkaturatzen. Bages eskualdeko Mura udalerrian kokatua, hiru langile eta ehunka lagun-tzaile dauka.

PROBA UGARI HAZI-GORDAILUKO BARIETATEKIN

Elkarrekin hazi-gordailuan 500 tokiko barietate inguru gordeak dauzkate. Hazi horiek gutxika lortuz joan dira, norbana-koek egindako donazioen bitartez zein elkarrekin urtero egiten dituen prospek-



HARITZ MAYORA

zio etnobotanikoen ondorioz. Esterrek, langileetako batek, katalogoan ortuarien 160 barietate inguru dauzkatala argitzen du. Dioenez, barietate guztiek dute interesa, balio handiko ondare genetikoak diren heinean. «Baina guztiek ez dituzte betetzen baratzezain profesional batek beharko litzuzkeen baldintzak. Ekoizpen-gaitasuna baloratu aldera, lehenik eta behin entsegu agronomiko bat egiten dugu izurri eta gaixotasunen aurrean duten jokaera eta baldintza klimatiko ezberdinetara egokitzeko duten gaitasuna aztertzeko. Sukaldaritzako ezaugarriak jakiteko dastatzeak ere egiten ditugu, baita uztu ondorengo portaera aztertu ere. Proba hauek guztiak egin ondoren, barietate interesgarrienak biderkatzen ditugu, merkaturatzeko», agertu du.

Nekazaritza ekoizpenak azken urteetan bizi izan duen estandarizazioa dela eta, hazien ekoizpena eta merkaturatzea

oso legedia zorrotzekin lotuta dago. Horren adibide da baserriarren artean betidanik egin izan diren funtsezko jarduerak, hazien trukaketa esaterako, debekatuta daudela. Hazi bat merkaturatu ahal izateko, hazia erregistratuta egotea ezinbesteko baldintza da. Horrek, ekoizpen txikientzat kostu ekonomiko onartezinak suposatzeaz gain, zalantzak sortzen ditu etikaren ikuspuntutik. Azken finean, nork du baserriar belaunaldi askok garatu duten barietate bat erregistratzeko eskubidea?

Les Refardesetik argitzen dutenez, beraien lantzen dituzten barietate gehien-gehienak ez daude erregistratuta, «alegaltasunean mugitzen gara, alegia. Hazi Ekoizleen Erregistroan eta Kataluniako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluan inskribatuta egon bagaude. Barietateen ezaugarri-fitxak betetzerakoan aintzat hartzen ditugu barietate bat erregistra-

tzeko kontuan izaten diren ezaugarriak. Baliteke etorkizunean lan hori egiten bukatzea, baina zalantzak dauzkagu. Hain zuzen ere, hori da agerian jarri nahi duguna: barietate zaharrek jasaten duten bidegabekeria. Erregistratuta ez egoteagatik, barietate komertzialei eskatzen zaizkien ezaugarriak ez betetzeagatik, ezin daitezkeela merkaturatu. Tokiko barietateak ez dira homogeenak (hori da barietate bat erregistratzeko baldintza oinarritzeko bat), baina, hain zuzen ere, horixe da barietate zaharren altxor nagusia: baldintza ezberdinetara egokitzeko duten gaitasuna».

www.lesrefardes.com
www.haziesarea.org

ENEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua